

Arrasate

P R E S S

1997ko
martxoak 26
357. zenb.



Aintzinako Aste Santua



IKUSPEGIA: BENARDO KORTABARRIA • KULTURA: MANUEL MOREIRAS
IRITZIA: DORITA MURGIA • 30 GALDERATAN: AMAI ZALAKAIN

“Urtean zehar milioika kilometro zure bidalketak puntualki eramaten”

Bizkaia Etorbidea,
16 behea.
20.500 ARRASATE
Tel.: 79 92 77

DOKUMENTU ETA PAKETEEN GARRAIO AZKARRA

900 100 000
Informazio Orokorra

<http://www.nacex.com>
Email: nacex@nacex.com

UDALAITZ, S.A.



Musakola auzoa, z/g • Tel.: 79 18 80 / 79 21 25 • ARRASATE

INCA: ARRAZOI GEHIAGO.



Zure lantokirik onena.
Zure mekanikarik onena.
Zure bermerik onena.

Zure segurtasun onena.
Zure irudirik onena.
Zure kalitaterik onena.

Kazetaritzaren ametsak

Bukatu da Korrika. Hala ere, aste honetako kolaboratzaileak huts egin duenez, lekukoa hartu eta niri orrialde hau betetzeko egokitu zait oraingoan, informazioaren mundu honetan sarri gertatzen den moduan.

Korrika eta presaka idatzi behar gainera, iritsi ez den kolaborazioaren zain egon garelako azken unera arte. Zer egingo diogu bada! dagoeneko ohitu gara horrela lan egitera.

Gazteago nintzenean, eguneroko argitaratzen zen egunkari batean lanean nebilela, astekari batean lan egitearekin amesten nuen. Eguneroko presak ahaztu,



Beñardo Kortabarria

“Bere erritmoa du notiziak, eta derrigorrez hortzak estutu eta erritmo horri jarraitu behar”

lana lasaiago egin, informazioa behar bezala landu, sakontasunez aztertu gaiak... horrelako irudia nuen. Inozoa! Errealitateak bestelakoa dela erakutsi dit, aldizkaria argitaratu asteen behin argitaratzen dela, baina hala ere presak eta urgentziak eguneroko lagun ditugula, planifikazioak

planifikazio informazioari aurre hartzea oso zaila dela. Bere erritmoa du notiziak, eta derrigorrez hortzak estutu eta erritmo horri jarraitu behar. Indurain sasoi onenean zegoenean, asko saiatzin ziren Tourreko mendatean bere gurgilari itsatsita joaten. Alperrik asko, gehienak amore eman behar. Guri ere noiz edo noiz gertatzen zaigu; alegia, berriek

ihes egiten digutela.

Gainera, ARKOn telebista dugu, eta hor erlojuaren orratzek agintzen dute. Gaur berri berri dena, bihar zahar zaharra da telebistan. Horrek ez du barkatzen. Zorteko zaudete arrasatearrak. Gutxi du herriko telebista eta herriko berriak etxean ikusteko aukera. Kristoren luxua da hori, baina jakingo bazenute zer nolako lana ematen duen eguneroko aireratzeak!

Ohitu gara beraz horrela lan egitera. Dena den, inozoa beti inozo. Horregatik oraindik amesten jarraitzen dut. “Hamabostekariren batean tokitxo bat egitea lortuko banu... edo zer arraio! hobeto hilabetekari batean, artikulua eta lasaiago idatzi ahal izateko”. Horrelako medio batean aulkitxo batez jabetuko banintz, seguru berehala erori eta kolpe galanta hartuko nukeela. Zoritxarrez kazetariak eta presak eskutik doazen bi anai dira. ■



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioak:** Ikern Altube (Tel.: 79 02 26). **Diselnuak:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Salaria, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besside M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Benezbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESSek** ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta intzieren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

357. zenbaki honetan

1997ko martxoaren 26an

Irakurlea idazle	4	Orain eta hemen	8/9	Kirolak jokoan	14/15
Asteko agenda	5	Euren ikuspuntutik	10	Kulturaren txokoa	17
Inkesta	7	Txutxumutxuak	11	Denborapasak	18
		Asteko gaia	12/13		

Ikuspegia

Beñardo Kortabarria 3

Euren ikuspuntutik

Dorita Murgia 8

Hogeita hamar galderatan

Amaia Zalakain 16

Asteko gaia

Aste Santua aintzinako erara 12/13



Arrasaten prozesio jendetsuak egoten ziren Aste Santuetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Asteazkena 26

• Gaez: Irizar, Erguin.

Osteguna 27

• Gaez: Azkoaga, Ferrerías.

Ostirala 28

• Gaez: Español, Iturriotz.

Larunbata 29

• Gaez: Irizar, Erguin.

Igandea 30

• Gaez: Azkoaga, Ferrerías.

Astelehena 31

• Gaez: Español, Iturriotz.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	78 71 57
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Onati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Arexabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazkiak	45 87 44
--------------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Onati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Arexabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

HERRITAR ESTIMATUAK

XI. mendearen atarian Xgauden une honetan, euskal gizartearen jasaten ari den langabezi-tasa tinko dagoela ikusten dugu. Orain arte gobernuak hartu dituzten neurriak ezin izan dute arazoa konpondu.

Ondorioz, gero eta jende gehiago dago lan merkatutik kanpo, oinarritzko beharrak bete ezinik. Egoera honek sortarazten dituen bazterketa eta pobrezia gero eta latzagoak dira, gainditu ezinak diruditelarik... Eta txarrena, ez dela antzematen inongo irtenbiderik; alderantziz, urte batetik bestera okerrera goaz.

Arazo larri honen aurrean, GIZARTE ESKUBIDEEN GUTUNAREN ALDEKO EKIMENA sortu da. Lege Ekimen Herriar bat aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, "Gizarte Eskubideen Gutuna" eztabaida eta onar dezan. Eskutitz honetan, herriar orok ondasun sozialean parte hartzeko, eta bizitza duin bat aurrera eramateko duen eskubidea jasotzen da, oinarritzko diru sarrera baterako eskubideen eta lana banatzeko lege batean gauzatuz.

Iniziatibaren tramitazioa onartua izan da gobernuan, baina "Gizarte Eskubideen Gutuna" Legebiltzarrean eztabaidatzeko 30.000 sinadura bildu behar dira.

Justizia eta elkartasun sentimenduak eraginda, era askotako erakundeak martxan dau-

de, dagoeneko. Arrasatearren partaidetza ere nahi dugu. Beraz, beste batzurekin batera iniziatibaren aldeko konpromezu bat hartu dugun erakunde gisa bilera batera dei egiten dizuegu, honako helburuarekin:

- Iniziatibaren nondik-norakoak zehaztasunez azaltzea.

- "Gizarte Eskubideen Gutunaren" edukiaren berri ematea.

Bilera Monterronenegin-go da, apirilaren 3an, ostegunean, arratsaldeko 7etan.

ELA, CC.OO, LAB, ESK-CUIS, UGT, STEE-EILAS, LANKIDEAK

ARRASATEKO IRITZI PUBLIKOARI

Feminista abertzaleok, Faspaldidanik jasaten ari garen errepresio eskalada publikoki salatu nahi dugu, feministak izanik axola zai-gulako eta gu herri honetako parte bat garelako. Arrasateko edozein protesta sozialari eta edozein herri adierazpideri logika errepresiboa aplikatzen dion Ertzaintza eta Ertzaintzaren arduradunen jarrera onartezina dela azpimarratzen dugu.

Eta martxoaren 8ko manifestazioan gertatutakoari

buruz, esan nahi dugu emakumeoi asko kostatu zaigula kalera ateratzea gure eskubideak aldarrikatzeko, eta ez dugula eskubide hau utziko. Eta ez diogu Ertzaintzari utziko gure eskubide hau ukatzea, beti aurrean izango gaituzte.

Eta manifestazio hartan gertatutakoa tratatzeko martxoaren 14ko Pleno Berezian eskuak altxatuta Arrasateko emakumeen kontra egindako botazioa, autoritarismoa da, etikaren degradazioa, Ertzaintzaren jarrera errepresiboari bidea zabaltzea.

PNV, PSOE, EA, denak batera emakumeen kontra. Hemen ikusten da berriz ere elkartasunik eta duintasunik gabeko politikari pasibo batzuen zeregina, Euskal Herriaren demokraziatik eta etorkizunagatik borrokatu beharrean, manifestazio eta adierazpide askatasuna saltzen ari dira. Askatasun demokratikoen gutximena estaltzen, moztortzen ari dira.

Gertakizunen ilara: manifestazioa, errepresioa, plenoa, jarrera politikoak, argi erakutsi digu errealitate gordin bat, politiko batzuek (hauen artean emakumeak) ez dutela zalantzarik izan inposaketaren, errepresioaren eta autoritarismoaren alde jartzeko. Laburtuz, diktadura demokratikoaren gorakadaren aldeko apustua egin dute... eta hori kezka-garria eta arriskutsua da.

Egizan

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

28

ostirala

■ ZINEA

El amor tiene dos caras
Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ OSTIRAL SANTUA

Goizeko 8etan Gurutz Bidea Portaloitik Santa Barbarara. 11etan Gurutz Bidea Uribarri eta Santamainan. 12etan Santa Teresan. Bestalde 11etan aitortzak San Juan Bautista Parrokian. Jesu-sen heriotzaren ospakizunak arratsaldeko 5etan izango dira San Juan Bautista, Uribarri, Santa Teresa, Santamaina eta San Andresko elizetan. Arratsaldeko 6etan San Frantzisko elizan.

■ DOKE TXAPELKETA

Elkarteen arteko XVIII. Doke txapelketa Monterronen goizeko 10etan.

29

larunbata

■ ZINEA

La guerra de las galaxias
Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZAPATU SANTUA

Goizean ez dago elizkizunik. Bazko gaubela: gaueko 8etan Santa Teresan, 9etan Uribarrin, 9.30etan San Frantziskon eta Santamainan. 10etan San Juan Bautistan eta San Andresen

30

igandea

■ ZINEA

La guerra de las galaxias
Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Landa, Kurtzeta, Arrasate. 51 kilometro.

Irteera: Goizeko 10etan Monterron paretik.

31

astelehena

■ ZINEA

La guerra de las galaxias
Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

kontuan hartzekoak

■ KIROL TOPAKETAK

Apirilaren 5ean Kirol Topaketak Iturripen goizeko 9.30etatik 5.30etara. Leioa, Gasteiz, Eibar eta Arrasateko La Merced ikastetxeen partaidetzaz. 350 ume etorriko dira.

■ ZINEAK ALAI ZINEMAN

Apirilaren 4an *Corazones robados* arratsaldeko 7etan eta 10etan. Apirilaren 5, 6, 7 eta 8an *Jerry Maguire*. Larunbata eta igandean 5etan, 7.30etan eta 10etan. Astelehen eta asteartean 7etan eta 9.30etan.

■ MUSAKOLA ETA ITURRIPEKO KIROLDEGIAK
ASTE SANTUAN

Musakolako kiroldegia Aste Santuko egunetan bakarrik goizez egongo da zabalik. Iturripekua berriz itxita. Apirilaren 1etik 4ra Iturripeko kiroldegia arratsaldeko 5etatik 10etara zabalik.

■ GRAFOLOGIA IKASTAROA

Apirilaren 7, 14, 21 eta 28an arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. Emalea: Irune Ibarra Psikologa-Grafologa. Prezioa 6.000 pezeta. Informazio gehiagorako deitu Aretxabaletako Loramendi elkartera, 77 09 70 zenbakira.

■ ESKALADA IKASTAROA

Apirilaren 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29an arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Eskolak Oñatiko Zubikoa kiroldegian emango dira. 16 urte gorakoentzat antolatuta. Izena emateko eta informazio gehiagorako deitu 71 63 75 zenbakira.

1

asteartea

■ ZINEA

La guerra de las galaxias
Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan.

3

osteguna

■ ZINEA

Corazones robados Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan


■ BILERA MONTERRONEN

Gizarte eskubideak azaltzeko bilera Monterronen arratsaldeko 7etan. ELA, CC.OO, LAB, ESK-CUIS, UGT, STEE-EILAS eta Lankideak sindikatuek antolatuta.

Aste Santuko oporrak ARKOn

Aste Santuko oporrak direla eta, apirilaren 11a arte ez duzue zuen etxeetan ARRASATE PRESS berririk jasoko. Era berean, ATBk ere eten bat egingo du bere emisioetan apirilaren 7a arte. Beraz, ordura arte, ondo eta formal ibili.



OPEL 

Opel Vectra Caravan berria.

**Zatoz eta proba
ezazu!**

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • Tel.: 79 05 86 • ARRASATE



GRONDO **Elektrizitatea**

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**
**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**
**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Ttnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Eliza denborarekin aldatuz doa?



Jon Elgezabal
Ikaslea
(23 urte)

Elizara joaten direnak nagusiak izaten direnez, elizaren ideiak ere zahartuta daude. Elizaren edukiak oso desfasatuta daude.



Nerea Barrutia
Ikaslea
(18 urte)

Nik uste dut eliza jende nagusiarendako dela, ez gazteondako. Denborarekin jendea konturatzen da zer den eliza eta ez da gehiago joaten. Nire ustez dirua ateratzeko erakunde bat da.



Raul Delgado
Ikaslea
(20 urte)

Nahiko zahartuta dago. Gizartea aldatuz doa, baina eliza ez da asko aldatu.



Begoña Agiriano
Langilea
(38 urte)

Atzean geratu da eliza. Gizartea azkar doa baina eliza ez.



Migel Gerenabarrena
Langilea
(60 urte)

Aldatu da apur bat baina ez behar beste.



Jone Bergaretxe
Etxekoandrea
(50 urte)

Apeles aitari entzun eta ahozabalik geratzen zara, baina nik uste dut apaiz gazteek apur bat aldatu dutela eliza. Askok ez, baina zertxobait bai.



Luis Mari Esteban
Langilea
(41 urte)

Urteekin aldatuz doala uste dut. Ez dakit onerako edo txarrerako izango den, baina aldatu da.



Ainhoa Zulueta
Ikaslea
(27 urte)

Aldatu da baina gehiago aldatu beharko litzateke. Emakumea, esaterako, oso baztertuta dago elizan, eta beste zenbait ideia ere berritu egin beharko lirateke.

Ikastaroak San Andresen

EUSKAL DANTZAK

Asteleheneretan, 6.30etatik 8etara, auzoko alkatezian, apirilaren 7tik maiatzaren 26ra arte.

ESKULANAK

Astearteetan, 3etatik 5etara, auzoko alkatezian, apirilaren 8tik maiatzaren 27ra arte.

SUKALDARITZA

Ostegunetan, 3etatik 5etara, auzoko herri-eskolan, apirilaren 10etik maiatzaren 29ra arte.

Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 77 12 28 telefonora arratsaldean, apirilaren 7a baino lehen.

ANTOLATZAILEAK:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

EBk irtetzea erabaki ondoren, HBk hartuko duen jarreraren zain

Joan den ostiralean eman zuen jakitera Ezker Batuak Udaleko gobernu taldea uztea erabaki duela. Gobernu kide izandakoak, HBk, berriz, albistea idazterako orduan oraindik azaldu barik zuen egoera berriaren inguruan zein iritzi duen eta zer egingo duen.

Irteeraren zergatiak azaltzeko eman zuen prentsaurrekoan Joseba Ugaldek esan zuen, ez duela uste hirukoak une hau zentzura mozioa aurkeztu eta HB alkatetzatik botatzeko aprobetxatuko dutenik. EBko zinegotziaren ustez, HB udaletxean finkatuta dago.

HBrekin batera osatu duten gobernu taldeak irte-

tzeko erabakia ahobatez hartu zuen EBren Arrasateko asanbladak. Ugalderen berbetan, aurrekontuetan euren proposamenak jaso ez izanak eta azken bi urteotan hirukoaren aurrekontuak onartu izanak bultzatu dituzte irtetzeko erabakia hartzera. Antton Karrerak, EBko Gipuzkoako koordinatzaileak, udal gobernuan ezkerreko alternatibak aurrera eramateko sartu zirela, eta hori posible ez bada gobernuan jarraitzeak zentzurik ez duela iritzi zion.

EBko zinegotziek erabakia ez dutela aldatuko esan zuten eta hilabeteko epea eman zien HBri Gizartea eta Ongizate Saileko batzordeburua izendatzeko.



EBk irtetzea erabaki eta gero, HB bakarrik geratu da Gobernu taldean.

Jaiotzak

- Ander Arregi Altuna. Martxoaren 15ean.
- Alaitz Gabilondo Errasti. 19an.
- Ane Sanchez Lasa. 20an.
- Joseba Garate Perez. 21ean.

Hildakoak

- Inocencio Esparza Miranda. Martxoaren 19an. 58 urte.

Txaloak Ezker Batuarendako

Espero bezala EBk agur esan dio gobernu taldeari nahiz eta oposizio berezi horretatik lanean jarraituko duela agindu. Lerro hauen bidez, hala ere, EBko bi zinegotziek izan duten jarreraren inguruan zertxobait esan nahi nuke bakarrik.

Batetik, J. Ugaldek berak ostiralean adierazi zuen bezala, gardentasunez jokatzeko ahalegindu dira, eta hori horrela izan da. Edozein gairi buruz galdetzean, bi zinegotziak beti informazioa emateko prest azaldu dira. Jarrera horretatik ikasi beharko lukete beste batzuk ere, harrigarria irudit

zitzaidan eta azken plenoan alkateak hirukoari galdetzea ea zein asmo duten lurzoru industrialaren inguruan. Oraindik horrela gaude?

Ez nuke goraiatu barik utzi nahi, euskararen arloan J. Ugaldek egin duen ahalegina ere. Gaztelaraz hobeto moldatu, eta askotan gai zailak azaldu behar izan arren, Josebarekin izan ditudan solasaldiak beti euskara hutsez izan dira, eta azken plenoan gainera, azalpen batzuk euskaraz egitera animatu zen. Horrela jarraitu.

Maria Agirre



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa • Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea
eta hizkuntz bereziera)
Logopedia • Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak
Judizial peritajeak

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94



Apirilaren 9an inauguratuko dituzte San Juan Ospitale Psikiatrikoaren edifizio berriak.

Apirila: inaugurazioen hilabetea Gesalibar aldean

Apirilaren 9an ofizialki inauguratuko dira San Juan Ospitale Psikiatrikoaren edifizio berriak. Jose Antonio Ardanza, lehendakaria, eta beste hainbat agintari etorriko da inaugurazio ekitaldira.

Nahiz eta orain inauguratu, iazko ekainaz geroztik San Juan Ospitaleko gaisoak eraikin berrietan daude. Guztira lau edifizio berri jaso dira: bat administraziorako, bestea gaisotasun psikiatri-

koak dituztenendako eta beste biak psikogeriatria zerbitzurako, hau da, pertsona nagusiendako. Horrez gain, inguru guztia urbanizatu da. 2.000 milioiko kostua izan dute obrek. Eraikin berriak izan arren, gaisoen kopurua ez da gehitu.

Aita Mennik, bestalde, gazteendako unitate psikiatrikoa zabalduko du apirilaren ospitalaren parean dagoen etxean. Unitatea 12 eta 17

urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta Euskadin zabalitzen den era horretako lehenengo izango da. Bereziki arazo psikiatrikoak dituzten gazteendako izango da unitatea, hala nola, depresioak edo elikadurarekin arazoak dituztenendako. Hasiera batean bost gaisorendako tokia izango bada ere, aurrera begira baliteke unitatea handitzea, eta gehiagori ere aukera ematea.

Musakolako kiroldegiari ultimatuma

Astelehenean hileroko batzarrara egin zuen AUKEAk, eta batzar horretan luze hitzegin zen Musakolako kiroldegiaren inguruan.

Bileran esandakoaren arabera, orain dela ia bi hilabete Gobernu Batzordetik neurri batzuk hartzea eskatu zen baina horiek ez dira bete. Besteak beste, Diputazioari eta beste enpresa bati txosten teknikoak egitea eta Udaleko brigadari kiroldegiaren egoera aztertzea eskatu zitzairen.

Egoera honen aurrean, asteleheneko bileran kiroldegia istearen aukeraz hitzegin zen, baina azkenean, ultimatua gisa beste epe bat ematea erabaki zen. Apirilaren 7rako Hirigintza Sailera kiroldegiaren egoerari buruzko txostenik iristen ez bada, seguruen kiroldegia itxi egingo da.

Oraingoz, Hirigintza Sailak egindako txostena dago bakarrik, eta horren arabera kiroldegiaren egoera txarra da. Bileran ahobatez hartu zen erabakia.



Santana auzoa, 4 etxeba Tfono: 71 48 45 ESKORLATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR


EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

USTEAK USTE

Ardurak eta ardurak

EBk utzi egin du Udaleko gobernu lana. Gogoratzen dut HBrekin akordioa lortu baino lehen, programaz berba egin zutela EBkoek; akordio zehatz batzuetan eta ildo nagusietan bat etorri zirela gobernuan.

Horrela gertatu zen. Euren asmoekin zer ikusi gutxi zuten aurrekontuak onartu eta gero, gobernuak utzi dute. Logikoa erizten diot erabakiari.

Zer gertatuko da orain gobernuarekin? HBk bakarrik eramango du? Aurrekontuak onartzerakoan bat etorri diren EAJK, EAK, eta PSE-EEK hartuko dute gobernu ardura-rik? Erantzunik ez daukat, baina uste dut sartu egin beharko lirakeela, politika kontuak baztertu eta herrian dauden gaiak aurrera ateratzeko ahaleginean murgildu. Izan ere, politika eta ardurak eskutik doaz; politika eta erosotasuna, berriz, ez.

Beñardo Kortabarria



Ezkontzaurreko Topaketak zertarako?

Dorita Murgia

Ezkontzeko erabakia hartzen denean, geure bizi osorako zeozer oso ona izango delakoan gaude. Jakin badakigu ez dela hori beti horrela gertatzen baina momentu horietan nola pentsatu ase ezina sentitzen den maitasuna beste era batekoa bihur daitekeenik? Zoriona, zoritxarra? Edo eta zeozer gehiago al dago?

Maitasun arloan zortea izateak ala ez izateak izango du eragina, bizitzako beste arlotan bezalaxe, baina ukatu ezinezkoa dena zera da: Maitasuna landu egin behar da, maitasunak elikatzea exigitzen du, zaindu behar handiko altxor preziatua delako.

Egun batean "zurekin betirako" ilusioz beterik elkarri esaten dioguneko konpromezu izugarri bate-

ra lotzen gara, zeren hasierako ur gainerako bitsetako amodio leuna eta gozoa, sus-traituz, aberastuz eta sendotuz joan behar da, egunetik egunera emankor bihurtuz, pertsona eta bikote bezala gustora, pozik sentitzeko nahiz mila ezadostasun eta arazo aurkitzeko bidean. Eta zeregin hau bikoteko bioi dagokigu, etengabeko iraupenez. Zortearen eskutan utzi ezkeru jai daukagu!

Ezkontzaurreko Topaketan ez da ezer erakusten, ezta

“ Bikote bakoitzak bere neurria eraikitzen du bien artean sortzen den GU espazio berria ”

inoren esperientziak eredu gisa jartzen. Bikotearen heldutasuna, elkarkomunikazioa eta maitasuna, sexualitatea, erantzunkizunez aita-ama izatea, eta ezkontzaren sakramentua, izenburu barruan agertzen diren gaiak jartzen ditugu mahai gainean ezkontzaiegi pentsaraziz eta beraien artean elkarriketa sortzeko asmoz.

Ez da helburua ados jartzea. Bikote bakoitzak bere neurria eraikitzen du bien artean sortzen den GU espazio berria, eta gure asmoa horretarako lagungarriak izan daitezkeen gai batzueri buruz erreflexio bat egiteko bideak ematea besterik ez da.

Antolaketa honetan gabiltzanok kristau bikote ezkonduak gara eta gure eskaintza elizatik ezkontzera doazen guztiei zuzenki luzatzen diegu. Horrek ez du esan nahi zibilez ezkontzen direnentzat atek itxita ditugunik. Alderantziz, atseginez eta errespetu handiz hartuko genituzke hauek gure taldeetan zeren era batera edo bestera ezkontzea, pentsamolde batekoa edo bestekoa izan, ezkontzerakoan denok desio eta itxaropen berdinak daramazkigu: ea elkarrekin pozik eta luzaro bizitzen garen!

Ezkontzeko asmatan bazabiltzate, anima zaitzete eta ekainean etorri hurrengo topaketetara.

Dorita Murgia
Ezkontzaurreko Topaketetako partaidea

● Txitxinpe ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**LARRINETXE
TABERNA
Udala auzoa**
79 22 15
Aste Santuan irekiko dugu!



IZENAK

Txatxilipurdik

zuzendaritza batzordea berri du. Kide berriak Arantzasu Lagunilla eta Xabier Olabarria izango dira.

ZORIONAK BIKOTE!

lazko azaroan Gregorio Urrutia eta Miren Atxa ezkondu ziren udaletxean, eta bazkaria Oñatiko Etxe-Aundin egin zuten. Ezkon bidaian, berriz, Thailandiara joan ziren. Urte askotarako!

GU KOTXEZ JOAN BEHAR

Jende ugari joan zen domekan Bilbora Korrikari hurrengo arte esatera.

Arrasatetik bi autobus atera ziren Bilbora, eta jendeak izenematea azken orduan egin zuenez, antolatzaileak autoz joan behar izan zuten. Eta zergatik ez korrika?



PLAENTXIARRAK BILDU

Aurreko batean afaria egin zuten Arrasaten bizi edo lan egiten duten plaentxiarrek. Afaltzeko hala ere ez pentsa Soraluze-ra joan zirenik. Ez, ez, herriko elkarte batean bildu ziren. Itxura denez, Soraluzen baino hobeto afaltzen da hemen.



Aste Santua aintzinako eran

Berrogei eguneko Garizumaren ondoren Aste Santua dator. Kristauek eta fededunek Kristoren heriotza eta berpizkundea ospatzen dituzte bost egunetan zehar. Duela 25 bat urte Aste Santuak fede handiarekin bizi ziren herrietan. Azken urtetan berriz, beharbada fede gutxiago dagoelako aldatu egin da Aste Santuaren zentzua. Orain jende askorentzat bost egun horiek opor garaia dira eta bidaiatzeko aprobetxatzen dute. Beste batzuren dako aldiz, Aste Santuak ez du zentzu erlijiosoa galdu; horregatik antolatzen diren ekintza liturgikoetan hartzen dute parte.

Arrasaten martxoaren 27an hasiko den Aste Santurako hainbat ekintza antolatu du elizak. Dena dela, gaur egun Aste Santuarekiko jendearen jarrera eta duela 30 urtekoa erabat desberdina da. Agustin Azkoaga arrasatearrak gogoan ditu bere gazte denborako Aste Santuak. Parrokiako akolitoa izan zenez, gertu gertutik bizi izan zituen sasoi hartako ospakizunak.

ASTE SANTUAK DUELA 25 URTE

Agustin Azkoagak ondo gogoratzen du Aste Santuak hasi baino lehen Garizuma eguneko giroa. 40 egun horietako domeketan ez zen dantzarik

izaten Plazan, debekatuta zegoen. Neska-mutil koxkorra eta emakumeak diaboloarekin eta txirikilaz jolasten ibiltzen ziren. Gizonak berriz, tabernetan.

Aste Santuko ekintzak **Eguasten Santuan** hasten ziren. Ordurako elizetan gordeta zeuden santuak atera eta txukun jartzen zituzten prozesioetan ateratzeko. Arraultz gorringoaz eta ardo zuriaz garbitzen ziren irudiak. Jakina,

Aste Santurako auzoetako apaizak etortzen ziren herri-
ra, guztira 12 bat elkartuz. Eguasten Santuko goizean maitinetan hartzen zuten parte herritarrek, goizetan egoten ziren otoitzetan. Maitinak eguastenetik eguakotxera arte egiten ziren. Era berean Agustinek ez du ahazten elizetan egoten zen iluntasuna. Barrualdeari giro goibela emateko. Aste Santuan leihoak oihalez estaltzen zituzte. Horrez gain,

debekatuta zegoen kanpaiak astintzea, beraz, eliz ekintza hasten zela adierazteko karrakak erabiltzen ziren. Domekara arte ezin zen kanpaiarik astindu. Pazko domekan kanpai doinuekin iragartzen zen Meza Nagusia.

Prozesioak **Eguen eta Eguakotx Santuan** izaten ziren. Kofradiak zeuden prozesioak antolatzeko eta herri-
tarrentzat ohore handia zen bertako partaide izatea.

Aste Santuko ekintzak

Aste Santurako Arrasateko Eliza Katolikoak ekintza ugari antolatu du. Egunez egun:

Ostegun Santua - Martxoak 27a

Mezak:

- Arratsaldeko 6etan: San Juan Bautistan, San Andresen eta Santamainan
- Arratsaldeko 7etan: San Frantziskon eta Santa Teresan
- Arratsaldeko 8etan: Uribarrin

Ostiral Santua - Martxoak 28

- Goizeko 8etan Gurutz bidea: Portaloitik Santa Barbarara
- Goizeko 11etan Aitortzak: San Juan Bautista elizan
- Goizeko 11etan Gurutz bidea: Uribarrin eta Santamainan
- Eguerdiko 12etan Gurutz bidea: Santa Teresan.

Jesusen heriotzaren ospakizuna

mezak:

- Arratsaldeko 5etan San Juan Bautistan, Uribarrin, Santa Teresan, Santamainan eta San Andresen
- Arratsaldeko 6etan San Frantzisko elizan.

Larunbat Santua - Martxoak 29

Mezak:

- Arratsaldeko 8etan Santa Teresan
- Arratsaldeko 9etan Uribarrin
- Arratsaldeko 9.30etan San Frantziskon eta Santa Mainan

Eguen Santu goizean mezara joan beharra zegoen. Orduan lan egiten zenez, etxeoandreak eta umeak joaten ziren. Arratsaldean guztiendako jai. Hirurak aldera prozesioa hasten zen. Kaleak jendez beteta eta anderoak, Santuak bizkarrean eramaten zituzten lagunak, gertu kalez kale ibiltzeko. Egun horretako prozesioan bost irudi ateratzen ziren. Prozesioen aintzindaria zenez, lehena San Vicente. Ondoren Ortu Santua, atzetik Katxoborratsua, laugarrena Ecce Homoren irudia eta azkena Kristo Nazaretoko. Parrokia-
tik, Erdiko kalera joaten ziren, Gazteluondotik Ferreriasera eta berriro Parrokiara. Irudi mirestuen Ortu Santuarena izaten ei zen. Herritarrek gehiago ordaindu behar zuten kofradia horretako partaide izateko.

Eguakotx Santuan ekintza liturgikoak San Frantzisko Elizan egiten ziren. Arratsaldean prozesioa, beste irudi batzurekin. San Juan ebangelistaren irudia, Parrokian egoten zena, Kristo urnan eta Doloretako Ama Birjina. Urnan zegoen Jainkoaren irudia Bergaran egin zuten eta urdinez jantzitako anderoak eramaten zuten. Egun horretan ere prozesioa Parrokia-
tik irteten zen Garibai kalera joateko. Bertan Klausurako monjak zeudenez poliki poliki zeharkatzen zuten kalea. Bukaera berriro Parrokian. Bai Eguen eta baita Eguakotx Santuan ere elizetan zeuden Santuak estali egiten ziren more koloreko ohialez.

Zapatu Santuan ekintza adierazgarriena ura, sua eta oleo Santuen bedeinkazioa. **Pazko Domekan** derrigorrez meza nagusira joan behar. Herritarrei gonbitea egiteko kanpai hotsak jotzen ziren.



Eguen eta eguakotxetan izaten ziren Aste Santutako prozesioak.

Agustinen berbetan garai hartan fede handia zegoen. Arrasaten 6.000 biztanle eta lau kotxe zeuden, baina inor ez zen kanpora joaten. Etxean berriz, ezin haragirik jan eta gauza asko debekafuta. Tabernetako billarretan ezin jokatu, ezta kartetan ere. Baimendutako joko bakarra dokea. Dokea gizonen joko zen eta urrezko txanponak erabiltzen zituzten.

Emakumeak etxean edo elizan egoten ziren. Gurutz bideak ere Aste Santuko ekintza izaten ziren. Egue-
nean eta eguakotxean egiten zituzten. Azkoagak oraindik ere oroimenean ditu Aste Santua hasi baino aste bete lehenago izaten ziren misioak, kanpotik etorritako sermoilarien berriketaldiak. Basabe jesuita eta Tirso karmelitarren sermoiak esatebaterako izugarriak izaten ziren, ileak tente jartzeko modukoak.

Aipatutako garaiko Aste Santuak askoz ere aberatsagoak ziren Agustin Azkoagarentzat. Bere ustez telebista etxeetan sartu zen unean fedea pisua galdu zuen. "Progresoa ez da fedearekin bat etorri eta horregatik galdu dira lehen zeuden baloreak. Nik dena dela, ez dut fede hori galdu eta heriotzeraino kristautasuna eramango dut odolean".

Agustinen moduko pentsakerarekin jende asko dago eta horiek izaten dira Aste Santua modu erlijiosoan bizi dutenak. Prozesioetan parte hartu eta elizak antolatzen dituen ekintzetara joanez igaroko dituzte Aste Santuko egunak. Beste batzuk berriz, eguzki izpiak gogokoago izan eta kostaldea edo mendia aukeratuko dute egun hauek pasatzeko. ■

Itxaro Zubillaga

Trialsinlariak

XABI ABASOLO eta NESTOR KORTABARRIA

*“Euskadiko txapelketan
dominaren bat lortzeko asmoa”*

— Zenbat denbora entrenatzen eta zelakoak izaten dira?

— Nestor: astean hiru bider entrenatzen dut. Xabi: asteko egun bat ezik gainontzekoetan. Lehenengo berotu egiten dugu, gero oztopotokak bilatzen ditugu bertan ibiltzeko: bankuak, ehborrak... Klean normalean ez dugu entrenatzen.

— Trialsina kirola da?


— Bai jakina kirola da, tresna baten gainean egiten den kirola eta ikuskizun handikoa. Trialsinean ondo ibiltzeko indarra eta adimena behar da, horrek fisikoki sasoiaren egotea eskatzen du.

— Gipuzkoako txapelketan 2. eta 3. postuetan geratu zineten. Nekeza izan zen?

— Zaila izan zen batez ere maila ona egon zelako.

— Udalako proba nolakoa izan zen?

— Etxean geundenez urduriago jarri ginen, jendeak animatzen gintuen baina urduritasuna ezin kenduta ibili ginen.



SASKIBALOA Azken tokia utzi



Urbina Maltzagak Mollet taldearen aurrean lortutako garaipenari esker sailkapeneko azken tokia utzi du. Une honekin 30 punturekin 13. tokian dago 6 partidu irabazi eta 18 galdu ondoren. German Mongek zuzentzen duen taldeari bi ihardunaldi falta zaizkio denboraldia bukatzeko. Apirilaren 6an domeka, Llobregat bigarren sailkatuaren bisita jasoko du Iturripen. Neurketa arratsaldeko betan jokatuko da. Azken ihardunaldian Meroil izango du arerio Urbina Maltzagak.

ESKUBALOA Maila galdu



Arrasate eskubaloi taldeak denboraldiko azken partiduan ere ezin izan zuen garaipena lortu. Gol bateko aldeaz Ibon Alzelairen mutilek 22 eta 23 galdu zuten Iturripen. Arrasatek denboraldia azken tokian bukatu du 12 punturekin. 22 ihardunaldietatik bost irabazi ditu, bi berdindu eta 15 galdu. Datu moduan aipatu galdu dituen partiduetatik erdia baino gehiago gol bateko aldeaz izan direla. Arrasatek Azken tokian bukatu duenez, datorren denboraldian bigarren mailan jokatuko du.

FUTBOLA Azkenean hiru puntu eskuratu




Aurreko bost partiduetan bi puntu bakarrik lortu ondoren, Beti ona taldearen kontra hiru puntuak eskuratu zituen Mon-

drak. 29. ihardunaldian beraz, bostgarren tokian daude 48 punturekin. Datorren partidua apirilaren 6an jokatuko dute Pasaiaen kontra. Pasaia 11. tokian dago 39 punturekin. Bestalde martxoaren 28an Realaren torneoko partidu bat jokatuko da Atxabalpen. Jubenil mailako Athletic eta Bartzelona aurrez aurre arratsaldeko 5etatik aurrera.

Emakumeei dagokienez, Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak apirilaren 6an jokatuko du Oiartzunen kontra Oiartzunen. Talde hori bigarren tokian dago sailkatuta, beraz arrasatearrak garaipena lortzeko ezin lokartuko dira.

PILOTA Atsedena Aste Santuan



Arrasateko pilotariak ez dute partidurik izango Aste Santuan. Apirilaren 5ean berriz, lanari ekingo diote. Deba Arroa eta San Andres txapelketako neurketak egongo dira jokoan.

TXIRRINDULARITZA Iberdrola jaun eta jabe

Udaberriko jubenil mailako III txirrindulari sarian Iberdrola taldea izan zen jaun eta jabe. Arrasate Txirrindulari Elkarrekin antolatutako lasterketak 86 kilometro izan zituen. Irabazlea Mikel Gaztañaga Iberdrola taldekoa izan zen. Bere denbora 2ordu 6 minutu eta 2 segundu. Bigarrena talde bereko Ander Perez eta hirugarrena Jon Joseba Lasa. Taldekako saria Iberdrolak jaso zuen eta mendikoa Beñat Garaialdek. Guztira 198 txirrindularik hartu zuten parte.


Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	2	2	0	0	13	7	4
Fosforos	2	1	1	0	12	4	3
MSM INGE Inte	2	1	1	0	9	7	3
Txeyenex	2	1	0	1	11	7	2
Sortu Informatika	2	1	0	1	5	12	2
Pepelus	2	0	1	1	3	8	1
Adelaida Aldibi	2	0	1	1	4	9	1
Abinagraus	2	0	0	2	7	10	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
AC Surcos	2	2	0	0	11	3	4
Insert Coin	2	2	0	0	6	3	4
Naranja Mekanika	2	2	0	0	8	6	4
Orlando Piratas	2	1	0	1	11	5	2
Koka Juniors	2	1	0	1	6	6	2
Okoretegi	2	0	0	2	4	8	0
Arrogoi Taberna	2	0	0	2	3	11	0
Totem	2	0	0	2	2	9	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Me la Pela	2	2	0	0	14	2	4
Irati STS	2	2	0	0	13	5	4
Diego Antonio	2	1	1	0	5	3	3
Onaniereng	2	1	0	1	10	9	2
Lorategi	2	1	0	1	8	14	2
Sokoakoak	2	0	1	1	8	12	1
Los Innombrables	2	0	0	2	9	16	0
Galartza Kont.	2	0	0	2	0	6	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Cerveceria Leintz	2	2	0	0	15	3	4
Nuevo taberna	2	1	1	0	14	9	3
KK Jaurilaritzi	2	1	1	0	13	9	3
Bedarreta Taberna	2	1	0	1	4	5	2
Betrayer	2	1	0	1	7	10	2
Jotakabau	2	0	1	1	8	9	1
Ojo Avisore	2	0	1	1	8	18	1
Ke Oxtias	2	0	0	2	6	11	0



Emaitzak

A taldea
Sortu Informatika 3 - Abinagraus 2
Txeyenex 6 - Pepelus 1
MSM Ingeni Integral 2 - Fosforos 2
Adelaida Aldibi 2 - Aurrera Bolie 7

B taldea
Naranja Mek. 4 - Koka Juniors 3
Okoretegi 2 - Inseet Coin 3
Arrogoi Tab. 1 - Orlando Piratas 8
Totem 1 - AC Surcos 6

D taldea
Irati STS 4 - Galartza Kont. 0
Lorategi 6 - Los Innombrables 4
Diego Antonio 3 - Sokoakoak 3
Onaniereng 0 - Me la Pela 4

E taldea
Betrayer 3 - KK Jaurilaritzi 7
Cerveceria Leintz 12 - Ojo Avisore 2
Nuevo taberna 8 - Ke Oxtias 3
Jotakabau 2 - Bedarreta Taberna 3

Laburrak

ASTE SANTUAN JAI

Zaldibar txapelketako jokalariek apirilaren 5a eta 6a arte atsedena izango dute. Egun horietan bigarren faseko hirugarren ihardunaldia jokatuko da.

HASI DA URIBE AUZOA TXAPELKETA

Joan zen asteburuan hasi zen eta lehen faseak 11 ihardunaldi izango ditu. Aurtengo txapelketan 55 taldek eman dute izena; talde horiek bost multzo-

tan daude banatuta eta multzo bakoitzak 11 talde ditu. Uribe Auzoako jokalariek apirilaren 12-13a arte izango dute atsedena. Orduan bigarren ihardunaldia egongo da jokoa Iturripeko kantxetan.

URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA


A taldea	B taldea	D taldea	E taldea	F taldea
Ford Publicop 2	Munar Fool 2	Nuevo Tab 2	Bortxitxak 2	Komando Alpargat 2
Jako al rey 2	Gallinero 2	Los Invalidos 2	Dribling 2	Leya 2
Flujos Secos 2	Mucho morro 2	Mendizabal Oki 2	Ke Oxtias 2	Ojo Avisore 2
Balon rojo 2	Rotor de Bolbogrado 2	Alai Gozokiak 2	Viboras 2	No haymus 2
Atxanta ke te abian 2	CF Elisabeth 2	AT Barbate 1	La mosca Gao 2	Hirei 2
Babajana Sexy 0	Blind 0	Ainarexia 1	Gerondis Bor 0	Los Innombrables 0
Niva Vin 0	Sartuixokfuerte 0	Molokai 0	Lautherbrunen 0	Sobredosis de Txeira 0
Astoen Villa 0	Ale Ale 0	Pier Nodoiuna 0	The Pepe 0	SGK 0
Pajak de Ansterdam 0	Astonia 0	DKB 0	Ganbelas 0	666 0
Sambuka Porretas 0	Manchester Fum. 0	Makai 0	Auri 0	Equus BTR 0
DZV 0	Argi Plastic 0	Doble Cero 0	Borrock Roll 0	Decima victima 0

EMAITZAK

A taldea	B taldea	D taldea	E taldea	F taldea
Flujos Secos 7 - Astoen Villa 3	CF Elisabeth 7 - Blind 6	Mendizabal Ok. 3 - Pier Nodoiuna 2	Viboras 7 - Leutherbrunen 3	666 3 - Leya 12
Babajana Sexy 4 - Balon Rojo 5	Astonia 2 - Gallinero 10	Molokai 3 - Alai Gozokiak 4	Ganbelas 1 - Dribling 9	Hirei 6 - Los Innombrables 4
Jako al rey 9 - Pajak de Ansterdam 2	Munar Fool 18 - Manchester Fu. 2	DKB 2 - LOs Invalidos 8	Auri 1 - Bortxitxak 13	SGK 3 - Ojo Avisore 10
Niva Vin 4 - Atxanta ke te abio 8	Rotor de B. 4 - Sartuixokfuerte 3	AT Barbate 4 - Ainarexia 4	Gandis de Borregos 2 - La mosca gao 5	Sobredosis de Tx.3 - No hay mus 6
Sambukas 0 - Ford publicop 8	Mucho morro 10 - Ale ale 2	Makai 3 - Nuevo Taberna 10	Pepe Wolsvagen 3 - Ke Oxtias 9	K. Alpargat 11 - Equus BTR 2

■ Amaia Zalakain

ONCEREN BULEGOKO ARDURADUNA ARRASATEN



1 1966ko abuztuaren 5ean jaio zen Oiartzunen baina gaur egun Arrasaten bizi da. Psikologia ikasi zuen Madrilan eta horretan lan egitea gustatuko balitzaio ere, gaur egun ONCERen bulegoaren ardura darama Arrasaten. Lagunek Maddi deitzen diote.

1. Zein da zure horoskopoa? Leo.

2. Sinestuna zara? Ez.

3. Animalia bihurtzekotan?

Txakurra.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Pazientzia eza/lzakera establea.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Jendaurrean hitzegiteak.

6. Amets bat? Psikologa gisa lan egitea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Desberdintasun ekonomikoak.

8. Gertakizun historiko bat? Errepublikaren eguna.

9. Nor miresten duzu? Garcia Marquez.

10. Zeri diozu beldurra? Lagunak ez izateari.

11. Zertaz damutzen zara? Gauzak gehiegi pentsatzeaz.

12. Negar egin duzun azken aldia? Orain dela bi hilabete, lagun bat hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Errepide hobeak.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Psikologa.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Monterron.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Zuzenbidea ikastea.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Guztietatik apur bat irakurtzen dut.

19. Gustoko janari bat? Mihiarraina.

20. Liburu on bat? *Cien años de soledad*.

21. Filmerik onena/txarrena? *El paciente inglés/Fotos*.

22. Musika talderik onena/txarrena? Kiko Veneno/Julio Iglesias.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Documentos TV/El Semáforo*.

24. Egin dizuten oparirik politena? Negar egiten zuen panpin bat.

25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Zinean, irakurtzen eta irteera motzak egiten.

26. Oporretarako toki bat? Kuba.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Janaria prestatzea.

28. Gomendio bat? Gehiago entzun eta gutxiago hitzegi.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Bai, maite dudan edonorengatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Inbertitu eta beteko nauen zeozertan lan egin.

**TOLDOS
LECE C/B**

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

**Eguzkiaren
indarrari
gogor egiten
dion marka
sendoa gara.**

SANER

ITURGINTZA, GASA ETA BEROGAILUAK

**Zure etxerako
aukera berria!**

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik.

Nafarroa, 8 - 2.A • ARETXABAETA
Tel.: 79 64 91 / Tel. mugikorra: 929 47 72 70

Urte askoko esperientzia merkatuan

MANUEL MOREIRAS

“Arrasatear askok ezagutzen du Galizia, baita maite ere”

Apirilaren 11n, 12an eta 13an *Do Dia da Galiziaren* ospakizunak egingo dira Arrasaten. San Andres auzoa olagarro eta enpanada usainez beteko da. Gaur egun Arrasaten 400en bat galiziar bizi da baina ez dute talde bateraturik osatzen. Horregatik, *Do Dia da Galizia* egunaren sortzaileak ahalegin guztiak egiten ari dira Arrasateko galiziarrek elkartu eta lokal bat erosteko. Manuel Moreiras bultzatzaileetarikoa da.

— Noiztik talde galiziarra Arrasaten?

— Orain dela 6 urte hasi ginen lagun batzuk *Do Dia da Galizia* prestatzen, beraz, talde moduan denbora hori daramagu. Talde moduan diot, oraindik ez gara elkarte eta. Gertatzen dena da *Do Dia da Galizia* egunaren inguruko ospakizun eta ekintzek arrakasta handia izan zutela eta orain ezin dugula atzera egin. Dena dela, benetako elkarte bat osatzea gustatuko litzaiguke, egoitza eta guzti. Arrasaten 400 edo 500 galiziar bizi direla kontuan izanik, talde polit bat osa daitekeela uste dugu.

— Zer zabiltzate egiten taldea handitu eta sendotzeko?

— Gure helburu garrantzitsuenetarikoa lokal bat erostea da. Bi kontu korrante zabaldu ditugu dirua sartu eta lokalerako dirua biltzeko. Herriko galiziarrei kontu horien berri eman diegu. Kontu korrante horietan dirua sartzen dutenen bidez, elkarte bat osatzeko interesa duen jendea zenbat den ere jakingo dugu.

— Zer moduz ari dira erantzuten galiziarrek?

— Gutxinaka gutxinaka animatuz



doaz eta nire ustez, jaien ostean gehiago animatuko dira. Apirilaren 13tik hilabetera emaitzak ikusiko ditugu eta ondoren erabakiko dugu zer egin. Lokal bat ez erosi arren, elkarte txiki bat osatuko dugu interesadugunok. Orain arte moduan ezin dugu jarraitu.

— Arrasateko euskaldunek ezagutzen dute Galizia?

— Bai, hemengo jende asko joaten da Galiziarra oporretan eta asko maite dute. Arrasateko euskaldun asko *Do Dia da Galizia* egunak heltzeko irrikitan egoten da.

— Orain arteko *Do Dia da Galizia* egunak zer moduz joan dira?

— Izugarri ondo. Herri guztia hurbiltzen da San Andresera jaietan parte hartzera.

— Aurtengo *Do Dia da Galizian* izango da jateko produktu berririk?

— Bai. Lakoi egosia, almendrazko galiziar tarta tipikoak eta rosakoiak egingo dira.

aste gazte

■ BEKAK

• Gipuzkoako Diputazioak Kultura arloko beka deitu ditu.

Modalitateak:

a) Musika, dantza eta antzerkiaren arloetan ikasketak egiteko beka.

b) Arte plastiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatura sorkuntza eta musika konposaketa arloak promozionatzeko beka.

c) “Nikanor Zabaleta” musika beka.

d) Historia ikerketako beka.

e) Iraupen laburreko arte-eremuko jardueretan bildu edo parte hartzeko laguntza politak.

Guzti hau eskatzeko epea: maiatzak 30.

■ LANA

• Gipuzkoako Ikastetxe Publikoetan ordezkapenak egiteko zerrendak ireki dituzte, arlo hauetan: frantsesa, ingelesa, metalaren teknologia, grekoa, gestio-informatikako teknologia, gorputz hezkuntza, eraikuntzako tailerra, eta entzumena eta mintzamena eta pedagogia terapeutikoa. Argibide gehiago Lurralde Ordezkaritzan. Tel. 41 28 67

• Nafarroako Unibertsitateak, bost artxibo eta liburutegi laguntzaile lanpostua deitu ditu. Epea: apirilak 4.

■ IKASTARO GAZTEAK

• Irrati Tailerrak: 2 aukera: irrati kontrola edo erre-dakzio eta lokuzio tailerra (irratsaioak egiteko). Apiriletik ekainera. Izen emateak Gazte Bulegoan.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Apirilaren 11n, 12an eta 13an *Do Dia da Galizia* festa ospatuko da San Andres auzoan

■ Horoskopoa

- **Aries** Oinetakoak kentzen dituzunean, guztiak aldentzen dira.
- **Taurus** Begirada horrekin nor erakarriko duzu?
- **Gemini** Ez eskatu ezinezko ezer. Bukatu ametsa.
- **Cancer** Bihotzean sentitzen dituzun taupadak zerenak dira?
- **Leo** Izerdi asko bota beharko duzu nahi duzuna lortzeko.
- **Virgo** Egindakoak eginda daude. Berandu da barkamena eskatzeko.
- **Libra** Ez beldurrik izan, jar zaitez ispi-luaren aurrean.
- **Scorpio** Zalantza askotxo duzu. Horrela ezin lasai bizi.
- **Sagittarius** Gaur ere haserre? Zer egingo diozu.
- **Capricorn** Pasio hitza entzun eta urdu-ri jartzen zara.
- **Aquarius** Badakizu: ekaitzaren ostean barea dator.
- **Piscis** Ereindako haziak beti ematen du fruitua.

■ Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12				13	14	
15			16			
17		18				
	19				20	

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Umoa denaren nola-kotasuna. 8. Burmuin. 9. Gizonezkoekin erabiltzeko dei hitza. 10. Anega-erdi. 12. Lekeition itsasoratzen den ibaia. 13. (Ald.) Azidoekin konbinatuz, haiak neutralizatzen dituen substantzia. 15. Lehen-aldiko *zen*, orain-aldian. 16. Hunoren errege eta buruzagia. 17. Zerbait eteten den aldia. 19. Herdoil. 20. (Ald.) Infusio mota.

Bertikalak 1. Joseba, IU-EBko zinegotzia. 2. Prestatu. 3. Masa, artikulua osatua. 4. Mitra. 5. Andeei dagokiona, Andeatokoa. 6. Alde hemendik. 7. Pertsonaren bat. 11. Zaratarik edo hotsik eza. 14. Gauza biren arteko diferentzia. 16. (Ald.) Eusko Nekazarien Alkartasuna. 18. (Ald.) Alfabetoko zazpigarren letraren izena.

Horizontalak: 1. Umotasan. 8. Garun. 9. To. 10. Anerdi. 12. Lea. 13. (Ald.) Base. 15. Da. 16. Atila. 17. Etenaldi. 19. Uger. 20. (Ald.) Te.
Bertikalak: 1. Ugalde. 2. Maneanu. 3. Orea. 4. Tur. 5. Andetar. 6. Ur. 7. Norbait. 11. Isil. 14. Alde. 16. (Ald.) ENA. 18. (Ald.) Ge.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
 Erdiko kale, 11
 Tel.: 79 14 33
 ARRASATE

IRATI TABERNA
 Ferrerías kalea • Tel.: 79 56 11
 ARRASATE

TTUKUN
 Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduzioak
 Offseta
 Ferrerías, 23 • ARRASATE
 Tel.: 79 46 62

FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA 97 IKASTAROAK • 2. Hiruhilabetea

Ordutegiak aukeran: goizez, arratsaldez eta gauez.

- OSASUN ALORRA**
 - Emakumea eta osasuna.
- GARAPEN PERTSONALEKO ALORRA**
 - Emozioen autokontrolerako teknikak.
- ALOR SOZIO-KULTURALA**
 - Marrazki eta pintura.
- EKINTZA BEREZIAK**
 - Saloi dantzak.

- TAILERRAK**
 - Tapizgintza bolilloak eta makramea.
 - Enkuadernazioa.
 - Sukaldaritza.
 - Jantzigintza.
 - Marrazki eta pintura.
 - Hari -lanak.
 - Punto eta gantxiloa.
 - Eskulanetan tailer librea.
 - Enmarkazioa.



kutxa fundazioa
fundación

f famili eta gizarte-hezkuntzarako zentruak
 centros de formación familiar y social

Apirilaren 7tik aurrera, informazioa eta izenematea.
 Santa Teresa, 12 Tel.: 79 04 59 ARRASATE

Vuelta ciclista
al País Vasco

XXXVII.

Euskal Herriko
txirrindulari itzulia

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren amaiera Arrasaten.


*Orena
bukaerarako!*



APIRILAK 11, OSTIRALA


Lehen Saioa (Goizez)

SOPUERTA - ARRASATE (97 Km.)



Bigarren Saioa (Arratsaldez)

FAGOR - GATZA GAIN (12,5 Km.)



ARRASATEKO UDALA



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK


SENTIMENEZ GOZATZEKO SUKALDEAK



Kolore gama zabalen konbinazioak bukaera profesionalenarekin



Eta orain IKERen erosteagatik sorpresa atsegina izango duzu.
Zatoz eta informa zaitez!

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42